




ERROBOTEN ERREGEA

H. BADGER

IRUDIAK: C. BENNETT ETA A. MACKIE

ITZULPENA: MIREN IBARLUZEA

desclée

1. ATALA

Kip Kirbyk bizimodu osoan amestu du une honekin.

ParticleBall lehiaketako final handiko azken ordu laurdenean sartu dira. Kipen taldeak, Central City Cyborgs taldeak, esku-eskura du garaipena.

Kipek aurrelari gisa jokutzen du. Bere esku dago irabazteko gola sartzea. Markagailuari begiratu dio.



ParticleBalla jolasa baino ez da hainbat gazterentzat. Baina, Kipentzat, den-dena da. Tira, bizimoduaren parte handi bat bai, behintzat.

Beste egiteko bat ere badu, oso garrantzitsua: Space Scouta da.

Lur planetan jende gehiegi bizi da eta ezinezkoa da den-denak bertan sartzea.

WorldCorp korporazioak Space Scoutak kontratatzen ditu, galaxia ezezagunetan zehar planeta berri baten bila aritzeko.

Hamabi urte ditu Kipek, eta inoiz izan den Space Scoutik gazteena da. Lur planeta 2 izango den hori aurkitzeko irrikaz dago. Space Scout guztiak daude aurkikuntza egiteko irrikaz.

Misio arrakastatsu bakoitzeko, Planetar-teko puntu bat lortzen dute Space Scoutek. Eta, aurkikuntza itxaropentsu bakoitzeko, puntu bi. Lur planeta 2 aurkitzen duen Space Scoutak sari izugarriak ditu zain, Ohorezko ezkutua barne.

Zuzendarien barne zerbitzarian daude erregistratuta bakoitzak lortutako puntuak. Space Scoutek beti dakite, beraz, nor dabilen ondo eta nor ez.

—Aurrera, Kip —oihukatu dio Kipen lagun onenak, Jettek. Cyborgs taldeko 34. aurrelari laguntzailea da Jett.

Jettek baloia jaurti dio. Metro betekoa da baloia, eta Kipengana urreratzen ari da.

Kip makurtu egin da, baloia buruarekin errematatu eta ate bertikalean sartzeko prest. Ate bertikala lurretik lau metrora dago!

Estadio itxi biribil batean jokatzen da ParticleBallean. Futbol-zelai biribil baten antza du, baina belardia oihal artifizial bat da, koltxonetena bezalakoa. Horrexegatik irits daitezke aurrelariak jaurtitako pilotak ate bertikaleraino.

Baloi erraldoia gero eta gertuago du Kipek. Begiak baloian iltzatuta, Kipek jauzi luzea egin du airean.

Baina, une horretantxe bertantxe...

Eeezzz!

Baloia txikitu egin da erabat: golf-pilotatxo baten tamainakoa da orain. Belarri ondotik pasatu zaio Kipi, eta kanpora joan da.

—Ezinezkoa zen hori kontrolatzea, Kip—esan dio Jettek, Kipen atzetik lasterka.

Ate bertikalak lau metro luze dira.

ParticleBalla

Jasotako baloi txikiena:
orratz-buru baten tamainakoa

Jasotako baloi handiena:
auto txiki baten tamainakoa

